

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

4740

AGINDUA, 2021eko irailaren 2koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez finkatzen baita zer egunetan egingo diren «Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua» eta «Laudioko (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua» aurreproiektuetako desjabetze-espedienteen eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatu aurreko aktak.

2018ko maiatzaren 11n, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Uraren zuzendari nagusiak teknikoki onartu zuen «Markijanako Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua Aiaran (Araba)» eta «Basaurbeko Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua Laudion (Araba)».

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko apirilaren 22ko Aginduaren bidez, desjabetze-espedientea hasi zen «Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua», eta «Laudioko (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren araztegiaren aurreproiektua» aurreproiektuen eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatzeko. Agindu bera bidez, informazio publikorako izapidea egin zen, eraginpeko ondasunen eta eskubideen berri emateko (2021eko maiatzaren 12ko EHAA, 92. zk., eta ALHAO, 51. zk.).

Informazio publikorako denboraldian alegazioak aurkeztu dira, eta behar bezala informatu dira.

Informazio publikoaren denboraldia igarota, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren uztailaren 6ko 174/2021 Dekretuaren bidez, «Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua» eta «Laudioko (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua» aurreproiektuen eragindako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela deklaratu zen, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betetzearren, honen bidez dei egiten zaie erantsitako zerrendako ondasun eta eskubideen titularrei, adierazitako egunean eta orduan, eta alde zuzen zuzen bere udalean agertu ondoren, okupatu aurreko aktak egiteko eta, hala badagokio, lurzoruak okupatzeko; dena den, interesdunek hala eskatuz gero eta beharrezkoa bada, lurzoruetara bertara joan ahal izango da.

Egintza horretara interesdunek beraiek agertu beharko dute, edo haien izenean jarduteko behar bezala baimendutakoek, eta titulartasuna egiaztatzeke agiriak (eskritura publikoak, pribatuak, Jabetza Erregistroaren ziurtagiriak edo ohar informatiboak, eta abar) eraman beharko dituzte, baita haien eskubideak egiaztatzeke beste ezein agiri ere; hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, argitaratutako zerrenda horretan agian agertzen ez diren eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek eta interesdunek egoki irizitako alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituzte eta eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda horretako okerrak zuzentzearren bakarrik. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza

2021eko irailaren 15a, asteazkena

eta Garraio Sailean, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba), eta hori egiteko epea ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko egunean amaituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 2a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

2021eko irailaren 15a, asteazkena

ERANSKINA

Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegia												
Finka zk.	Herria	Titularra	Behin betiko desjabetzea	Akueduktu-zortasuna	Aldi baterako okupazioa	Lur-eremua	Lur-zatia	Azpi-lurzatia	Eguna	Hilabete	Ordua	Udala
AY-73	Aiara	Álava Agencia de Desarrollo	4.886 m ²			4	73		29	Iraila	10:00	Aiara
AY-74	Aiara	Aianox	2.608 m ²			4	74		29	Iraila	11:00	Aiara
AY-75	Aiara	Álava Agencia de Desarrollo	9 m ²	689 m ²	1.137 m ²	4	75		29	Iraila	10:00	Aiara
AY-76	Aiara	Aianox	4.030 m ²	949 m ²	1.019 m ²	4	76		29	Iraila	11:00	Aiara

Laudioko (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren Araztegia												
Finka zk.	Herria	Titularra	Behin betiko desjabetzea	Akueduktu-zortasuna	Aldi baterako okupazioa	Lur-eremua	Lur-zatia	Azpi-lurzatia	Eguna	Hilabete	Ordua	Udala
LA-72	Laudio	Juan Miguel Cremades González	9.595 m ²			7	72	A,B	30	Iraila	10:00	Laudio
LA-145	Laudio	Juan Miguel Cremades González	24.416 m ²			7	145	H,I,J	30	Iraila	10:00	Laudio